



## Baionan bost militanteen kontrako epaiketa atzeratu dute urriaren 15era arte

---

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 11/06/2024

Epaitegiaren kanpoaldean hamarnaka lagun bildu dira gazteei sostengua emateko.

Martxoaren 6an indar errepresiboek bost militante *atxilotu zituzten Lapurdin*, hainbat ekintza leporatuta: Baionako tren turistikoa margotzea, inmobiliarien aurkako hainbat eraso, bi hauek uztailaren 14ko egunari lotuta, eta erretreten erreformaren aurkako manifestazio batean egondako liskarretan parte hartzea. Epaiketa ekainaren 11n jarrita zegoen, Baionako auzitegian, hala ere, urriaren 15era atzeratu dute, beraien aurkako dosierra berandu aurkeztu baita.

Gaur goizean, errepresio kasu hori salatzeko, Baionako epaitegiaren kanpoaldean, hamarnaka lagun bildu dira gazteei sostengua emateko "errepresioa borrokatu" lelopean. Auzipetuak kanpoan zeuden pertsonen txaloen eta oihuen artean sartu dira epaitegira.

---

<https://eh.lahaine.org/baionan-bost-gazteen-kontrako-epaiketa>